

**JARDUEREN TXOSTENA**

**2005**

**Irakaskuntza eta Garapen Profesionala**

# JARDUEREN TXOSTENA

## 2005

### AURKIBIDEA

	Or.
1.- Zerbitzua eta bere jarduerak .....	2
2.- Irakaskuntza eta Prestakuntza .....	6
2.1 Graduatu aurreko Prestakuntza	
2.2 Graduatu osteko Prestakuntza	
2.3 Etengabeko Prestakuntza	
3.- Antolaketa profesionala.....	12
4.- Prestakuntza eta Ikerketarako Laguntzak .....	13
4.1 Aurkezpen orokorra	
4.2 Emaitzak laguntza moten arabera	
5.- Ikerkuntzaren aldeko babesa .....	24
5.1 Ikerkuntza proiektuetarako laguntzak	
5.2 Ikerkuntza unitateentzako laguntzak	
5.3 Ikerkuntza sustatzeko beste zenbait jarduera	

#### Eranskinak:

- I. Espezialitate kreditatuak
- II. 1. urteko egoiliarrak
- III. Ospitaleetako egoiliarrak
- IV. 2005eko I+G-erako laguntzak

# 1.- ZERBITZUA ETA BERE JARDUERAK

Aurreko urteetan bezala, hemen aurkezten dugu Irakaskuntza eta Garapen Profesionaleko zerbitzuaren jardueren Memoria, bai prestakuntza eta antolamendu profesionalaren arlokoa eta bai ikerkuntza sanitarioari dagokiona.

Urte ekitaldiaren garapenean eragina izan duten kanpoko inguruabarren artean aurreko honako hauek azpimarra ditzakegu:

- Aurreko ekitaldian baino intzidentzia handiagoaz, 2003an argitaraturiko Osasun Sistema Nazionaleko araudiaren aplikazioak, aldaketak eragin ditu espezialitate medikoetan eta Ministerioaren eta Autonomia Erkidegoen arteko jarduera prozeduretan.
- Osakidetzaren I. eta II. mailetako Garapen Profesionaleko inplementazioak, urtearen akaberatik aurrera zeregin ugari bat sorrarazi du espedienteen bilaketan, Prestakuntza eta Ikerketa Ziurtagiriak sortzeko helburuz.
- Bioef-en funtzionamendurako, hots, Ikerkuntza Proiektuentzako laguntzak ordaintzeko erakunde partaide gisa, egokitzapen prozesu luze bat behar izan da.

Aurrekontu honetako partida garrantzitsuenak, alde batera utzita aurreko urteetan konprometitutako partidak, berrikuntza eta ikerkuntza institutuaren finantziario zuzena eta BAME programa estaltzen duen transferentzia handia, honako hauek izan dira:

## 2005 URTERAKO AURREKONTUA

### GASTU ZUZENA

	<b>Mila euro</b>
Bilerak, Ikastaroak eta Ebaluazioak	85
Sailarentzako ISAF Laguntzak	38
Irakaskuntza eta Garapen profesionalerako azterketak	48

### DEI. PUBLIKOETAKO TRANSFERENTZIAK

Ikasketak Sakontzeko Bekak	76
Ikerlaritzan prestatzeko Bekak	76
Entitateen funtzionamendurako laguntzak	50
Bilerak antolatzeko laguntzak	65
Ikastaroak antolatzeko laguntzak	158
Ikerkuntza Proiektuetarako laguntzak	463

### TRANSFERENTZIA BEREZIAK

Osakidetzari Bilerak Antolatzeko	48
Osakidetzari Ikasketak Zabaltzeko	64
Kawa Fundazioa	46

Gehitu egin dira ebaluatzaileei ordaintzeko eta ikastaroren bat finantzatzeko fondoak, eta zuzkidura bat ireki da Etengabeko Prestakuntzako Euskal Kontseiluaren eta Irabaz-en jardueretarako.

Jarraian laburbildurik aurkezten ditugu baliabide finantzario hauekin gauzatu diren jarduerak, funtsezko ezaugarriak eta berrikuntza garrantzitsuenak azpimarratuz.

**Irakaskuntzan**, ohiko giza baliabideen eskasiarekin harremanak mantendu ahal izan dira Ospitaleko, Familiako Medikuntzako eta Osasun Mentaleko Irakaskuntza Batzordeekin, finantziario osagarriarekin babestuz. Ministerioan gestionatu dira datorren deialdirako espezialista plazen eskaintza eta irakaskuntza unitateen kreditazioa, BME (Barneko Medikuen Egoilarra) azterketak zaindu dira eta beren irakaskuntza unitateen auditoretza prozesuren bat erregistratu duten zentroetara joan da.

Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskola Unibertsitarioarekiko harremanak mantendu dira eta erizaintzako bi espezialitate hauetako programak koordinatu dira: emagintza eta osasun mentala.

Osakidetzako zegozkien ospitale zentroetan irakiar Kurdistaneko mediku espezialisten prestakuntza bisiten laugarren programa gauzatu da.

**Etengabeko Prestakuntzari** dagokionez, (Etengabeko Garapen Profesionala) era onargarrian funtzionatzen du jardueren kreditazio agentziak eta Etengabeko Prestakuntzaren Euskal Kontseiluaren aldeko babesa mantentzen da. Programa osagarri bat gauzatzen da ikastaro eta bileren antolamendurako laguntzak emateko, deialdi publikoaren bitartez.

**Antolamendu Profesionalaren** arloan, parte hartu da Medikuntza Familiar eta Komunitarioko Medikuei Espezialista titulua lortzeko laugarren deialdian, horretarako probak urte honetan egiterik izan ez bada ere.

Pertsonal sanitarioarentzako **Prestakuntza Erakundeei Laguntzak** emateko programa klasikoek programa marko bakar batean jarraitzen dute. Periodikotasunez eguneratzen dira itxita egon behar luketen baina erabakitzeke jarraitzen duten espedienteak eta programaren datu-basea hobetzen lan egiten da. Berriro iragarri da Ikasketak Sakontzeko **Beken** programa.

Aurrera dihardugu **Ikerkuntza Proiektuentzako Laguntzen** programarekin, FIS deialditik bereizirik, eta bertan barne hartuz ikerketaren emaitzen zabalkunderako jarduerak bereziak. Osakidetzako Ikerketa Unitateak babesten dira, beraien jardueraren finantziarioan parte hartuz Ikastaroentzako Laguntza Programaren eta Programa Hitzarmenaren bitartez. Ikerlari Prestakuntzarako Laguntza eta Beken programa osagarria gauzatzen da.

Jardueren zenbakizko datuen laburpena honako hau da:

**Irakaskuntza:** graduosteko 861 espezialista goren mailako titulaziokoak (BME, BFE eta, BPE) eta 40, erizaintzako espezializazioko bi programen artean, honako hauek atenditu dituztenak: Ospitale Irakaskuntzako 7 Batzordek, Famili eta Komunitate Medikuntzako 3 Irakaskuntza Unitatek, Osasun Mentaleko 3 Batzorde Aholkularik eta Erizaintzako 2 Irakaskuntza Unitatek. Berauen lana sustatzeko 29.000 €ko diru laguntzak eman dira.

Graduaurreko 172 ikasle aritu dira Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Eskola Unibertsitarioan, 54 ikasle graduosteko ikasmaila guztietakoak eta ENI programako 24 ikasle, europar lizentziatura ateratzen.

**Etengabeko Prestakuntza:** Profesio sanitarioetako Etengabeko Prestakuntzako 480 jarduera kreditatu dira.

**Antolamendu profesionala:** Familiako Medikuntza titulua salbuespenez, hots, EKOE prozeduraren bidez, lortzeko probak 2006 urtera arte atzeratu dira.

**Prestakuntzarako laguntza indibidualen** programak, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren artean 93 beka eman ditu, guztira 160.000 €

**Prestakuntzarako erakundeen aldeko laguntzen** programak, ikerketarako laguntzak barne hartu gabe, 246 laguntza eman ditu, Osasun Sailaren eta Osakidetzaren artean gestionatuak, guztira 290.000 €ko zenbatekoaz. Laguntza hauekin, besteak beste, 5 profesional elkargoren Etengabeko Prestakuntza finantzatu da, hain zuzen, 42 ikastaro, 30.000 €rekin.

59 ekintza zientifikoren **Interes Sanitarioa** onartu da.

**Ikerketaren sustapena.** Osasun Sailak 19 laguntza eman ditu ikerketa proiektuetarako, 625.000 €ko zenbatekoaz. FIS-ak, bere aldetik, 49 proiektu finantzatu ditu, guztira ia 2.000.000 €ko zenbatekoa jarritz. Osasun Sailak zuzenean parte hartu du 60.000 €rekin Osakidetzako Ikerketa Unitateen finantziazioan.

**I + G**-rako eman diren laguntza guztietan **8 helegite** bideratu dira, horietako 1 aintzat hartu delarik.

Urtean zehar, gogor lan egin da EJI-ren laguntzarekin zerbitzuko bi **datu-base** hauen aldaketan: I + G Laguntzena, O38 programa, Sinfo-rekin hitzartua, eta EP-ren Kreditazioena, Q51 programa, eskabideen telematikarekin hitzartua. Urtearen amaieran, datorren urtean produkziara eramateko egutegiak adostu dira.

**Web gunerako** atzipena, Irakaskuntza Zerbitzuaren eta Garapen Profesionalaren zerbitzu zerrendarekin, orain Osanet atariaren bidez egiten da.

## **Giza taldea**

Osasun Saileko bulego zentraletatik jarduera hauek bideratu dituen taldeak Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaria den **Marisa Arteagoitia González**-en eta Osasun Sailburuordea den **Rafael Cerdán**-en zuzendaritzapean jardun du.

Taldea honako hauek osatu dute:

**Txomin Uriarte**, Zerbitzuko Arduraduna.

Irakaskuntza eta Prestakuntzan **Marijo Bombín**-ek dihardu. Etengabeko Prestakuntzako jardueren kreditazio sistemaren gestioan, Idazkaritzako arduradun gisa **Garbiñe González de San Román**-ek dihardu, **Angela Romero**-ren laguntzarekin.

**Mikel Echaniz**, Antolamendu profesionaleko jardueraz arduratzen da eta Zerbitzuko hainbat ekintzatan parte hartzen du.

Prestakuntza eta ikerketarako Laguntzetan aritu dira **Karlos Garate**, **M<sup>a</sup> Mar Saez de Buruaga** eta **Kristina Senarriaga**, azken hau otsailaz gero.

Lan guztia, noski, Osasun Saileko eta Osakidetzako beste unitate batzuen laguntzarekin gauzatu da. kontaktu ohikoenen artean arlo hauetako arduradunak daude: Osakidetzako Etengabeko Prestakuntzako, Irakaskuntzako Batzordeetako, Batzorde Aholkularietako, ikerketako unitateetako, ikerketarako batzordeetako, BIOef-ekoa, Berrrikuntza eta Ikerketa eta Osasuna eusko funadazioa), erizaintzako eskolako, Osasun Saileko zerbitzu zentraletako (Aurrekontuak eta Kontularitza, Araubide Juridikoko Zuzendaritza) eta Osakidetzako (Asistentzia Espezializatuko eta Lehen Mailako Asistentziako Zuzendariordetzak), eta ospitaleko zerbitzu erakundeetako, lehen mailako atentzioko eta espezifikoetako kontaktuak.

Halaber, lan egin da Zerbitzuko teknikariei eragiten dieten alegazioen prestakuntzan, Osasun Sailak aurkezturiko Analisi Funtzionalen proposamenean.

## 2.-IRAKASKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

Irakaskuntza eta Prestakuntzaren arloak, batetik Prestakuntzarekin eta, bestetik, antolamendu profesionalarekin loturiko jarduerak garatzen ditu, guk hemen bereizirik analizatuko ditugunak.

### 2. 1. Graduurreko Prestakuntza

*Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskola*

Graduurreko eta graduosteko prestakuntza jarduera ohikoez gainera, ENI (European Nursing Initiative) lizentziatura programarekin jarraitzen da.

Instantzia bakoitzeko ikasle kopuruak honako hauek izan dira:

#### I. taula: EUE ikasleak

<b>GRADUAURREKO IKASTAROAK</b>	<b>Ikastaroa 2005/06</b>
1.a	55
2.a	52
3.a	65
<b>Guztira</b>	<b>172</b>

<b>ENI LIZENTZIATURA</b>	
1.a	0
2.a	15
3.a	9
<b>4.a</b>	<b>0</b>
<b>Guztira</b>	<b>24</b>

<b>GRADUOSTEKO IKASTAROAK</b>	<b>2005</b>
Egoera kritikoko pazientearen erizaintzako zainketak	30
Irakaskuntzako tutoreentzako prestakuntza	24
<b>Total</b>	<b>54</b>

*Mediku kurduentzako prestakuntza programa*

Mediku kurduak Bizkaiko ospitale zentroetara eginiko laugarren bisita programari dagokionez. hau hiru hilabetetan gauzatu zen, irailtik abendura, eta oraingo honetan hiru kirurgia ekipok parte hartu zuten, ekipoak kirurgialari batez, anesthesiologo batez eta erizain batez osatuak eta Kurdistanen mendebaldeko hiru hiriburu nagusietako bakoitzekoak. Iragarria zegoen bisitarietako batek ez zuen etortzerik izan.

*Unibertitate-Sanitatea Hitzarmena*

Alderdi partzial batzuk landu ziren gai konkretu honi buruzko kontsultei erantzuteko.

## 2. 2. Graduosteko Prestakuntza

*Medikuak eta beste lizentziadun batzuk.*

Oinarritzat harturik 2010-2015 urteetarako espezialista premien aurreikuspenaren eguneratzea, Osakidetzak sumatzen dituen premiak eta irakaskuntza eskaintzaren gaitasuna, akordio batera iritsi zen Irakaskuntzako Batzordeetako lehendakariekin sistemako irakaskuntza plazen eskaintzaren gainean.

Aurten OSN guztiarekin negoziaturiko Kupo Autonomikoak funtzionatu du.

2005eko abenduaren 31n zeuden egoiliarren kolektiboa ondoko tauletan laburbiltzen da (eta eranskinetan garatzen da).

### **II. taula: Irakaskuntzaren egitura BMEn 2005ean**

Ospitaleak	Egoiliarrak	Especialitate kop.		Tutoreak
		Kreditatuak	Egoiliarrekin	
	<b>BME, BPE, BFE</b>			<b>BAME, BAPE, BAFE</b>
Gurutzeta	217	38	36	39
Donostia	116	33	26	33
Basurtu	106	24	20	24
Txagorritxu	62	18	14	18
Galdakao	57	19	17	19
Santiago	24	8	5	8
Institutu Onkologikoa	2	2	1	2
San Eloy	1	1	1	1
Zamudio	4	2	1	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>589</b>	<b>145</b>	<b>122</b>	<b>146</b>
	<b>F eta K M.</b>	<b>Irak. U.</b>		<b>FM eta KOM.</b>
Irak. U. Bizkaia	120	4	1	54
Irak. U. Gipuzkoa	89	4	1	45
Irak. U. Araba	63	3	1	21
<b>GUZTIRA</b>	<b>272</b>	<b>11</b>	<b>3</b>	<b>120</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>861</b>	<b>156</b>	<b>124</b>	<b>266</b>



**III. taula: EAEko egoiliarak 2005 urtean (ospitale eta urteka)**

Ospitaleak	Egoiliar kop.					
	1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	Guztira
	53	56	52	48	8	217
Donostia	33	28	28	23	4	116
	29	25	26	21	5	106
Txagorritxu	14	16	15	14	3	62
Galdakao	14	14	16	10	3	57
Santiago	6	6	5	5	2	24
Zamudio	2	1	1	-	-	4
San Eloy	1	-	-	-	-	1
Institutu Onkologikoa	1	-	-	1	-	2
<b>Bizkaiko F eta KM</b>						
Gurutzeta	14	15	16			45
Basurtu	11	7	7			25
Galdakao	5	13	14			32
San Eloy	8	5	5			18
<b>Gipuzkoako F eta KM</b>						
Donostia	16	17	17			50
Bidasoa	4	3	2			9
Zumarraga	5	5	5			15
Mendaro	5	5	5			15
<b>Arabako F eta KM</b>						
Txagorritxu	11	11	12			34
Santiago	6	6	6			18
Deba Garaia	3	4	4			11
<b>GUZTIRA</b>	<b>241</b>	<b>237</b>	<b>236</b>	<b>122</b>	<b>25</b>	<b>861</b>

*Erizaintzako espezialitateak*

Erizaintza Obstetrikiko-Ginekologikoa

2005 urtean gehitu egin da erizaintza obstetrikiko-ginekologikoko egoiliarren kopurua 16 plazara. Horrela, bi urteko espezialitatea ikasten diharduten ikasleen guztizko kopurua 30ekoa da.

Osasun Mentaleko Erizaintza

Honetan ere gehitu egin da plazen eskaintza; hala, 2005eko abenduan 10 dira espezialitate honetan formatzen diharduten ikasleak, urtebetez irauteko aurreikusia dagoen programa betetzen.

### *Prestakuntza programen kalitatea*

Prestakuntza programen kalitatea sustatzen eta zaintzen dihardugu, azpiegiturak eta irakaskuntza unitateen funtzionamendua babesteko neurriak hartuz eta zuzendaritza organoekin elkarlanean jardunez, batez ere irakaskuntza Auditoretzen eta zerbitzu eta espezialitateen Kreditazioen bitartez.

Auditoretzei dagokienez, 2005ean, Osasun Ministerioak Gurutzeta eta Bidasoa Ospitaleei eta Erizaintza Obstretiko-ginekologikoko (emaginak) Irakaskuntza Unitateari dagozkionak gauzatu ditu. Eskertzekoa izan da Osasun Sailaren aldetik Zuzendaritzako teknikaria den Bizente Jasaren partaidetza. Azken bi kasuetako emaitzak jaso dira, egokia iritzi zaiolarik irakasten den prestakuntza eta aise gaudituz dira kreditazioetarako baldintza estandarrak.

Irakaskuntza unitateen Kreditazio prozesua, LOPS-aren ondorio gisa, Osasun Saileko Plangintza eta Antolamendu Sanitarioko Zuzendaritzaren bitartez egiten da. Urte ekitaldi honetan honako hauek kreditatu dira:

Donostia Ospitaleko Dermatologia  
Donostia Ospitaleko Emaginak (plaza gehikuntza)  
Bizkaia Familiako Medikuntza (Leioako OZ)  
Bizkaia Familiako Medikuntza (OZen banaketa berria)  
Erizaintza Mentala (plaza gehikuntza)

Euskadiko Medikuntza Prebentiboko eta Osasun Publikoko Irakaskuntza Unitatearen kreditaziorako gestioak aurreratu dira, lehendik zeuden bi irakaskuntza unitateak egokituz.

IRABAS-ek (Irakaskuntza Batzordeen Euskal Sarea), Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren organo aholkularia bera, tutoreentzako hiru prestakuntza ikastaro eman ditu, Osakidetzako Etengabeko Prestakuntza programaren markoan.

Babes ekonomikoa honako honen bidez gauzatzen da:

*Irakaskuntza batzordeentzako laguntzak ikastaroen antolaketarako.*

Ikastaro eta bileren antolaketarako laguntza deialdiaren barruan esleituak. Guztira 29.090 €ko zenbatekoa transferitu zen eta era honetan banatu zen:

#### IV. taula: Irakaskuntza Batzordeentzako Laguntzak. 2005

	<b>DIRUZ LAGUNDURIKO IKASTAROAK</b>	<b>EURO</b>
Donostia Ospitalea	5	4.150
Basurtuko Ospitalea	5	2.880
Gurutzetako Ospitalea	16	12.550
Santiago Ospitalea	6	2.940
Bizkaiko Osasun Mentala	1	300
Gipuzkoako F eta KM	5	2.910
Bizkaiko F eta KM	4	1.030
Arabako F eta KM	5	2.330
<b>LAGUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>47</b>	<b>29.090</b>
<b>Batez bestekoa</b>	<b>6</b>	<b>3.600</b>

#### 2. 3. Etengabeko Prestakuntza

##### *Profesional Elkargoentzako Laguntzak EP-rako*

Deialdi publikoaren bidez ebatzirik, sanitatearen arloko profesional elkargo guztientzat.

#### V. taula: Elkargoentzako Laguntzak Etengabeko Prestakuntzarako. 2005

<b>Elkargoa</b>	<b>Ikastaro kop.</b>	<b>Ordu kop.</b>	<b>Euro</b>
Gipuzkoako Erizaintza	15	306	11.400
Bizkaiko Erizaintza	8	212	7.560
Arabako Erizaintza	10	286	10.920
Bizkaiko Farmazialariak	3	42	2.160
Azter. Sani. Fund. (Bizkaiko Med.)	15	279	6.600
Bizkaiko Psikologoak	1	114	1.500
<b>GUZTIRA</b>	<b>52</b>	<b>1.239</b>	<b>40.140</b>
<b>Batez bestekoa</b>	<b>9</b>	<b>210</b>	<b>6.700 €</b>

##### *Profesio Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzaren Kreditazioa*

Ebaluazio Batzordearen 22 bilera egin dira eta beste 2 lan bilera ebaluatzaileekin, berauetan aurkeztu zirelarik eskabide eredu berriak eta ebaluazio instrumentuan eginiko aldaketak.

Urriaren amaieran, Bilbon, Idazkaritza Teknikoko VII. Jardunaldiak antolatu ziren Osasun Sistema Nazionalako Batzorde Kreditatzaile guztietako 29 ordezkariaren

partaidetzarekin, eta bertan hainbat erabaki hartu zuren OSN guztian eragin garrantzitsua izango dutenak.

2005 urtean zehar, 589 eskabide jaso dira, sistema martxan jarri zenetik kopuru altuena hain zuzen, gehikuntza handia suposatzen duena aurreko urtekoekin alderatuta (350) edota aurreagokoekin.

#### VI. taula: EPko jardueren kreditazio eskabideak, 2005 urtean

Kreditatuak	480	%81
Ukatuak	79	%13
Baztertuak	13	%2
Ez onartuak	13	%2
Erabakitzekeo	4	%1
<b>Jasotakoak guztira</b>	<b>589</b>	

Ezekoa eman zaien jarduera gehienak entitate hornitzailearen gaitasun edo esperientzia faltagatik izan dira, edo graduosteko prestakuntza jarduerak zirelako.

Aurten, jarduera multiprofesionalek suposatu dute aurkezturiko eskabideen kopuru altuena, ezaugarri hori, kasu gehienetan, bi profesio hauetan laburbiltzen bada ere: medikuntza eta erizaintza (%56). Eskabide gehien aurkezten dituen kolektibo profesionala oraindik ere erizaintza da (%29), portzentaje hori nabarmenki jaitsi den arren aurreko urteetakoekin alderatuta. Jarraian medikuntza dator (%20), aurreko urteko portzentaje berean mantenduz; hurrena, farmazia (%5), bere jarduera zertxobait gehituz, eta ondoren erizaintzako laguntzaileak (%4,6), nabarmenki gora egin dutelarik.

Funtsezko hornitzaileak aurten berriz ere Osakidetza (%36) eta Profesional Elkargoak (%35) izan dira, biek ere ia jarduera kopuru berdina aurkeztu dutelarik. Arlo klinikoa (zuzeneko atentzioa) izan da berriz ere kreditaturiko aktibitateen zati handiena bereganatu duena profesio guztietan, jarduera anitzdiziplinarrak barne (%66). Arlo ez klinikoen (zeharkakoen) artean kreditatu diren jarduerak batez ere arlo hauetakoak izan dira: kalitate-gestioa (%38), ebidentzian oinarrituriko ikerketa-medikuntza (%26) eta komunikazio-elkarrizketa klinikoa (%20).

Garapen Profesionaleko Batzorde Teknikoaren enkarguz, OSN-eko Giza baliabideen Batzordeko organo kontsultiboa bera, lan talde bat antolatu dugu, 2003ko legeriaren arabera, Etengabeko Prestakuntzari buruzko ED bat elaboratzeko helburuaz. Lan horretatik sortu zen zirriborroa udan aurkeztu zen eta Autonomia Erkidegoetara helarazi zen alegazioetarako. Urtearen amaieran Giza baliabideen Batzordeak berriro ekin die ED horren bideratze lanei.

#### *Autonomia Erkidegoetako Prestakuntzaren Arduradun Taldea*

Lankidetzan dihardugu Autonomia Erkidegoetako Prestakuntzaren lan talde arduradunarekin, osasun publikoko eskolen eta OSN-aren markoan. Zerbitzuak parte hartu du 2004ko emaitzen ustiaketan eta itaunsortaren aldatetan.

### **3.- ANTOLAMENDU PROFESIONALEKO JARDUERAK**

#### **3.1. Medikuntza Familiar eta Komunitarioko espezialitatearen salbuespenetzko lorpena**

2005ean iragarri da Famili eta Komunitate Medikuntza Espezialistaren salbuespenetzko titulua lortzeko probarako laugarren deialdia, 1998ko Dekretuan xedatua dagoenaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegotik 106 lehiakide aurkeztu dira EKOE (Ebaluazio Kliniko Objektibo eta Egituratua) probak egiteko, baina enpresa esleitzaileren kontratazioko atzerapenaren erruz, probak ezin izan dira gauzatu aurten eta 2006ko aurreneko hiruhilekoan egitea aurreikusten da.

#### **3.2. Ziurtagiriak**

Osakidetzako Garapen Profesionaleko espedienteak bete ahal izateko, Etengabeko Prestakuntzagatiko merituen puntuazioan ahalegin handi bat egin behar izan da ikastaro orduen eta ikerketa proiektuetako partaidetzaren balidazioan, askotan oso aspaldiko espedienteak berreskuratzen ahaleginduz.

#### **3.3 Bestelakoak**

Esku hartu da Europako Elkarteko eta Hegoamerikako tituluen homologazio prozesuko hainbat kasu indibidualetan beren eginkizun profesionala Euskadin garatu ahal izan dezaten eta, orobat, erizaintzako espedienteen konbalidazioan Europako Elkartean lan egiteko baliagarri izan daitezen.

## **4.-PRESTAKUNTZA ETA IKERKETARAKO LAGUNTZAK**

### **4.1. Aurkezpen orokorra**

Sanitateko I+G-erako Laguntzen deialdi publikoaren bidezko programak aurreko urteetako ildotik jarraitzen du, hiru deialdi gauzatu direlarik:

- Ikastaroen eta bileren antolaketako jarduera guztiak barne hartzen dituen deialdi bat, edozein dela ere erakunde antolatzailea. Barne hartzen ditu, halaber, entitate zientifikoentzako laguntzak, dela berauen funtzionamendurako, dela publikazio periodikoen argitalpenerako.
- Beste deialdi bat ikerketa proiektuei laguntzeko. Ikerketa anitz diziplina eta anitz zentrotakoa izatea exijitzen da, eta ikerketa sareekiko sintonian egotea.
- Hirugarren deialdi bat, prestakuntza indibidualaren zabalkunderako bekak emateko. Bi modalitate aurkezten ditu: bata ikerlaritarako bokazioen trebatze eta sustatzera bideratua dago eta besteak atzerrian Ikasketak Zabaltzeko Beken irudi historikoa berrezartzen du. Ikerketaren Sustapeneko Ekintza Bereziek proiektuei laguntzeko deialdietan barne hartuak jarraitzen dute.
- Bestalde, aurrerantzean ere Osakidetzari delegatzen zaio Ikasketak zabaltzeko Laguntzen esleipena eta bere pertsonalaren Bileren Antolaketa.

Programa bi zutoin hauek ditu oinarri: prestakuntza eta ikerketako jarduera guztiak ikuspegi global bakar batean integratzea, eta Etengabeko Prestakuntza profesionalen eguneroko lanera hurbiltzea.

Ahalegin berezi bat egiten jarraitzen da atzeraturiko espedienteak eguneratzen, hots, itxita egon behar luketenak, emaitzak edo dokumentazioa aurkezteko epeak iraungita daudelako, eta jadanik ia guztiak eguneratuak daude.


Ikerketa proiektuentzako laguntzak emateko deialdiak atzerapen garrantzitsu bat jasan du, entitate partaidearekiko lana egokitu behar izan delako, bai deialdiaren formulazioan eta bai ebazpen prozesuan, horretarako 70etik gora kanpoko ebaluatzailearen laguntza erabili delarik.

Urtearen amaieran ekin zaie jazoera zientifikoaren Interes Sanitarioaren Aitormenarako deialdiaren aldaketa lanei.


Osasun Sailak 2005eko aurrekontuaren kargura emaniko I+G-erako Laguntzak 298 izan ziren, 1.083.334 €ko zenbatekoaz, ondoko grafikoetan eta IV. Eranskineko Laburpen Taulan ageri den bezala banakaturik:

# I+G Laguntzak 2005ean


## 1) Gizabanakoei:




## 2) Erakundeei:



## 3) Ikerketa Proiektuei:



## II. Grafikoa: Eboluzio historikoa. Laguntzak guztira



## VII. Taula: Gauzatze egutegia. 2005

	Deialdia		Ematea	
	Agindua EHAA		Ebazpena EHAA	
Prestakuntza eta Ikerketarako Bekak	20.05.05	07.06.05	16.09.05	11.10.05
Erakundeentzako eta Bilerak Antolatzeko Laguntzak	24.05.05	16.06.05	15.11.05	11.01.06
Ikerketa Proiektuak	05.07.05	01.08.05	15.12.05	23.02.06
Ikasketak Zabaltzeko Bekak Osakidetza	24.01.05	25.02.05	23.12.05	08.02.06
Bileren Antolaketa Osakidetza	24.01.05	25.02.05	02.08.05	29.08.05
Ikerketa Komisionatua OSTEBA	19.07.05	01.09.05	24.11.05	21.12.05



## **4. 2. Emaidzak laguntza motaren arabera**

Datozen orrialde hauetan aurreko tauletan agiri diren datuei buruzko informazio zehatzagoa eskaintzen dugu, laguntza mota bakoitzaren ezaugarri esanguratsuenak aipatuz. Indibidualetatik hasiko gara.

**Ikerlaritzarako Prestatzeko Beken** programak bi modalitate eskaintzen ditu kontuan edukiz ea soldata mantentzen den (laguntzak) ala ez den (bekak). Ikerketa proiektuetarako laguntzen osagarria da, eta bere berrorientazioa aztertzen da, zeren ez baitu lortu egiazki ikerlari karrera baterako prestakuntza planei erantzutea.

**Ikasketak Zabaltzeko Bekak** funtsean Osakidetzako pertsonalarentzat eskaintzen dira. Osasun Sailak berriz ere bere gain hartzen ditu ongien hornituriko kasuak, atzerrian eginiko birziklatze egonaldi laburrei dagozkienak.

**Elkarte zientifikoentzako eta beste entitate batzuentzako pertsonalaren prestakuntzarako Laguntzen** deialdi bateratuak aurreko estandarrak mantendu ditu. Entitateei dagokienez, aipatzekoa da gorakada editoriala, diruz lagunduriko argitalpen periodikoen kopurua gehitzea eragin duena. Ikastaroak antolatzeko laguntzei dagokienez, hauek profesional elkargoetan eta Irakaskuntza Batzordeetan kontzentratzen dira, baina oraingoan ere banaketan Ikerketa Unitate batzuk sartu dira.

**Interes Sanitarioaren Aitormena** atalak aldaketa baten premia dauka, etengabeko garapen profesionalaren irizpideetara egokitzeko.

## PRESTAKUNTZARAKO SAILEKO BEKAK ETA LAGUNTZAK

### A) Ikasketak Zabaltzeko Bekak

- Deialdi agindua: 2005eko maiatzak 20 (EHAA 05.06.07)
- Helburua: Atzerrian prestakuntza finantzatzea.
- Ebazpena: 05.09.16 (EHAA 05.10.11)

### VIII. taula: Ikasketak zabaltzeko Saileko Bekak eta Laguntzak

	Eskabide kop.	Emandakoen kop.	Zenbatekoa Eurotan	Laguntzen batez bestekoa
<i>GUZTIRA</i>	14	10	51.310	5.660

### B) Ikerlari gisa prestatzeko Bekak

- Deialdi agindua: 2005eko maiatzak 20 (EHAA 05.06.07)
- Helburua: Pertsonal ikerlaria prestatzeko plan individualizatuak finantzatzea.
- Ebazpena: 05.09.16 (EHAA 05.10.11)

### VIII. taula: Ikerlari gisa prestatzeko Bekak eta Laguntzak

	Eskabide kop.	Emandakoen kop.	Zenbatekoa Eurotan	Laguntzen batez bestekoa
<i>GUZTIRA</i>	21	14	81.212	5.800

### III. Grafikoa: Eboluzio historikoa. Ikerlari gisa prestatzeko Bekak eta Laguntzak

Emandakoen kop.



Zenbatekoa (Mila euro)





## IKASKETAK ZABALTZEKO BEKAK (OSAKIDETZA)

- Deialdiaren Ebazpena: 2005eko urtarrilak 24 (EHAA 05.02.25)
- Helburua: Pertsonal sanitarioaren prestakuntza plan individualizatuak finantzatzea.
- Ebazpena: 05.12.23 (EHAA 06.02.08)

### IX. taula: Ikasketak Zabaltzeko Osakidetzako Bekak

	Eskabide kop.	Emandakoen kop.	Zenbatekoa Eurotan	Laguntzen batez bestekoa
<i>GUZTIRA</i>	108	69	65.571	950

### IV.Grafikoa: IZB-en eboluzio historikoa (Osakidetza)



## ENTITATEENTZAKO LAGUNTZAK BEREN FUNTZIONAMENDURAKO ETA PRESTAKUNTZA JARDUERAK ANTOLATZEKO


Barne hartzen ditu: Entitateentzako Laguntzak (bere bi modalitateetan, hots, Funtzionamendua eta Argitalpenak) eta Bilerak eta Ikastaroak antolatzeako Laguntzak. Barne hartzen dira, halaber, Profesional Elkargoek, Irakaskuntza Batzordeek eta Ikerketa Unitateek antolaturiko ikastaroetarako laguntza espezifikoa, Irakaskuntzaren eta Ikerketaren aldeko Babesaren ataletan iruzkintzen direnak, hurrenez hurren.

### A) ENTITATEEN ERAKETARAKO EDO FUNTZIONAMENDURAKO LAGUNTZAK


- Deialdi Agindua: 2005eko maiatzak 24 (EHAA 05.06.16)
  - Helburua: Babesa ematea prestakuntza eta eguneratze teknikoak eskaintzen duten eta/edo ikerketa sanitarioa sustatzen duten izaera zientifiko sanitarioko entitateei.
  - Ebazpena: 2005eko azaroak 15 (EHAA 06.01.11)
- 
- Eskabide kop.: 11
  - Emandako Laguntzak: 10 (%90)
  - Gastua: 33.000 €
  - Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 3.300 €(handiena 5.700 €eta txikiena 1.100 €)
  - Tipologia: Espezialitateetako profesional elkarteak (4), Beste batzuk (6)
  - Eraketa (0); Funtzionamendua (10)

### V. Grafikoa: Entitateentzako Laguntzen eboluzio historikoa

Emandakoen kop.




Zenbatekoa (Mila eurotan)



## B) PUBLIKAZIO PERIODIKOAK ARGITARATZEKO LAGUNTZAK

- Deialdi Agindua: 2005eko maiatzak 24 (EHAA 05.06.16)
  - Helburua: Publikazio zientifiko periodikoen argitalpena sustatzea.
  - Ebazpena: 2005eko azaroak 15 (EHAA 06.01.11)
- 
- Eskabide kop.: 10
  - Emandako Laguntzak: 10 (%100)
  - Gastua: 37.600 €
  - Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 3.760 €(handiena 14.500 € txikiena 2.000 €)

### VI. Grafikoa: Argitalpen Periodikoentzako Laguntzen eboluzio historikoa



### C) BILERA ETA IKASTAROEN ANTOLAKETARAKO LAGUNTZAK

- Helburua: Informazioaren eta ezagutza zientifikoaren trukearen garapena eta hobekuntza, horretarako, bileren eta ikastaroen finantziakzioa babestuz. Osakidetzak jarritako laguntzekin osatzen da.

#### Osasun Sailetik Osakidetzari EZ dagozkin erakundeei

- Deialdi Agindua: 2005eko maiatzak 24 (EHAA 05.06.16)
- Ebazpena: 2005eko azaroak 15 (EHAA 06.01.11)

#### A) Bilerak

- Eskabide kop.: 28
- Emandako Laguntzak: 25 (%90)
- Gastua: 59.400 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 2.400 € (handiena 9.000 € eta txikiena 300 €)


#### B) Ikastaroak

- Eskabide kop.: 150
- Emandako Laguntzak: 56 (%37)
- Gastua: 52.040 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 930 € (handiena 5.000 € eta txikiena 500 €)

### VII. Grafikoa: Osasun Sailak Bilerak eta Ikastaroak Antolatzeko emaniko Laguntzen Eboluzio Historikoa


#### Bileretarako Laguntzen eboluzioa

Emandakoen kop.




#### Ikastaroetarako Laguntzen eboluzioa


Emandakoen kop.



#### Bileretarako Zenbatekoa (Mila eurotan)



#### Ikastaroetarako Zenbatekoa (Mila eurotan)



## Osakidetzak bere zentroei

- Deialdiaren Ebazpena: 05.01.24 (EHAA 05.02.25)
- Ebazpena: 2005eko abuztuak 02 (EHAA 05.08.29)

### A) Bilerak

- Eskabide kop.: 18
- Emandako Laguntzak: 18 (%100)
- Gastua: 32.681 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 1.800 € (handiena 4.800 € eta txikiena 120 €)


### B) Ikastaroak

- Eskabide kop.: 37
- Emandako Laguntzak: 16 (%43)
- Gastua: 15.400 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 960 € (handiena 2.500 € eta txikiena 120 €)

## VIII. Grafikoa: Bilerak eta Ikastaroetarako Osakidetzak emaniko Laguntzen Eboluzio historikoa


### Bileretarako Laguntzen eboluzioa

Emandakoen kop.




### Ikastaroetarako Laguntzen eboluzioa


Emandakoen kop.



### Bileretarako Zenbatekoa (Mila eurotan)




### Ikastaroetarako Zenbatekoa (Mila eurotan)



## EKINTZA ZIENTIFIKOETARAKO INTERES SANITARIOAREN AITORMENA (ISA).

- Deialdi Agindua: 1987ko uztailak 1(EHAA 87.07.13)
- Eskabide kop.: 63
- Emandakoak: 59 (%97)
- Mota: Bilerak: 50 Ikastaroak: 9

IX. grafikoa: ISA-aren eboluzio historikoa



## BIDERATURIKO ERREKURTSOAK

Emaniko laguntzen aurka aurkeztu diren errekurtsuak, eta 2005ean bideratu direnak, honako hauek izan dira:

	Aintzat hartuak	Ukatuak	Guztira
Ikerketa Proiektuak	1	6	7
Ikastaroen Antolaketa	0	1	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>1</b>	<b>7</b>	<b>8</b>



## 5. IKERKETARENTZAKO BABESA

Azken atal honetan analizatuko ditugu unitate honek ikerketa sanitarioa sustatzeko gauzatzen dituen jarduerak. Ikerketa, gure sistema sanitarioan, munduko gainerako lekuetan egiten denarekin lotua, eta zalantza gabe populazioaren osasun premiei erantzutera bideratua, BIOef-en bitartez gauzatzen da. Urte honetan, ikerketaren babeserako gure hiru ildo nagusiak honako hauek izan dira:

**5.1 Ikerketa Proiektuentzako Laguntzak** dira instrumentu bat bateko eta zuzenena.

Jarraian xehetasun handiagoaz deskribatuko ditugu 2005 urteko ikerketa proiektuei laguntzeko ebazpenen emaitzak.

### 1. Osasun Sailaren Laguntzak

#### ◆ Ikerketa Sanitarioa

- Deialdi Agindua: 2005eko uztailak 5 (EHAA 05.08.01)
- Helburua: Ikerketa Proiektu anitz diziplinatako eta anitz zentrotakoak finantzatzea
- Ebazpena: 2005eko abenduak 15 (EHAA 06.02.23)
- Eskabide kop. guztira: 104
- Emandako Laguntzak: 19 (%18%)
- Gastua: 625.130 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 33.000 € (handiena 62.000 € eta txikiena 12.000 €)
- Esklusiboki finantzatuak: 19. ISF-arekin erdi bana finantzatuak (0)
- Iraupena: bi urtekoa (3) eta hiru urtekoa (16)
- Banaketa zentrozen arabera:
  - Donostia O. (1)
  - Galdakaoko O. (2)
  - Basurtuko O. (3)
  - Txagorritxuko O. (1)
  - Gurutzetako O. (5)
  - Bizkaiko LM-ko Ikerketa Unitatea (1)
  - Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza (1)
  - Osasun Saila (1)
  - UPV/EHU (1)
  - Zentro pribatuak (3)


## 2. FIS-aren Laguntzak

### ◆ Proiektuak


- Deialdiaren Ebazpena: 2005eko maiatzak 21 (BOE 2005.06.02)
- Aginduaren Aldaketa: 2005eko ekainak 2 (BOE 2005.06.04)
- Emandako Laguntzak: 49
- Zenbatekoa Guztira (% 19a barne): 1.993.991 €
- Laguntza bakoitzeko batez bestekoa: 41.000 € (handiena 117.000 € eta txikiena 1.600 €)
- Banaketa zentroyen arabera:
  - Gurutzetako O. (14)
  - Donostia O. (7)
  - Galdakaoko O. (2)
  - Txagorritxuko O. (4)
  - Santiago O. (1)
  - Deba Garaiko O. (1)
  - Basurtuko O. (1)
  - Zamudioko O. Psikiatrikoa
  - Bizkaiko Lehen Mailako Atentzioa (2)
  - Osasun Saila (1)
  - UPV/EHU (6)
  - Zentro pribatuak (9)

### X. grafikoa: Proiektuetarako Laguntzen eboluzio historikoa Osasun Sailak emandako Laguntzak

Emandakoen kop.




Zenbatekoa (Mila eurotan)




### FIS-ak emandako Laguntzak

Emandakoen kop



Zenbatekoa (Mila eurotan)



## 5.2 Ikerketa Unitateentzako Laguntzak

Harremanetan jarraitzen da Ikerketaren Babeserako Unitateekin, batez ere, Osasun Sailak I+G-erako laguntzak emateko egiten duen urteroko deialdiaren testuinguruan, euren iritzia ezagutzeko eta egiten dituzten iradokizunak entzuteko.

Osasun Sailak unitate hauek finantzatzeko eman duen laguntza bi bidetatik etorri da:

Prestakuntza jarduerak, ikastaroak antolatzeko entitateentzako laguntza programaren bitartez eskatzen dira. Aurtengo emaitzak honako hauek izan dira:

Arabako IU	3 ikastaro	900 €
Donostia O.-eko IU	1 ikastaro	4.000 €

Galdakao eta Gurutzetako Ospitaletako aholkularitza estatistikoa, UPV/EHU-ko Matematika Aplikatuko Fakultatearekin hitzartua, ospitale bakoitzeko programahitzarmenaren bidez finantzatzen da. 2005eko zenbatekoak honako hauek izan dira:

Gurutzetako Ospitalea	29.910 €
Galdakaoko Ospitalea	17.598 €

IU-ek garatzen duten ikerketaren produkzio eta zabalkundeko gainerako jardueren finantziazioa ere unitatea hierarkikoki dagokion zentroko Hitzarmen-Programaren bitartez egiten da. Finantziazioa beste partida handi batzuetan barne hartu da, Donostia Ospitalean Ikerketaren Sustapena deritzonean, 223.513 euroko zenbatekoarekin (horren zati handiena Unitate Esperimentalaren finantziatorako izan delarik). Osakidetzako Zerbitzu Zentraletan, horien menpe baitaude Bizkaiko LM eta Arabako IU, partida Lehen Mailako Atentzioko Ikerketa Unitateak izan da, 220.000 euroko zenbatekoaz. Aurten ez da izan partida espezifikorik Basurtuko Ospitaleko hitzarmen-programan.

## 5.3 Ikerketaren sustapeneko beste jarduera batzuk

Ikerketaren sustapeneko beste jarduera batzuk gauzatzen dira, hein handi batean, BIOefen lana babesteko, adibidez, ikerlaritzan prestatzeari buruz urtarrilean egin zen Mintegian parte hartzea. Zerbitzuak garaturiko jarduera espezifikoen artean, azpimarratzekoak dira Osasun Saileko I+G-eko Eustat-erako estatistika ofizialaren elaborazioa, eta Osakidetzako zentroi eskainiriko laguntza aipatu estatistika egiteko. Era berean, aurten ere harremanetan jarraitu da bere egoitza Zamudio Ospitalean daukan Ikerketa Neurokimikoko Zuzendaritzarekin.

**Ikerketaren finantziatoria zuzenean bideraturiko guztizko zenbatekoari** dagokionez, aipatu beharra dago Osasun Ministerioak ikerketa proiektuen finantziatorako, FIS-aren bitartez, emandako laguntzaren gorakada, 2004ko 800.000 €tik aurten eman diren ia 2.000.000 €ra hain zuzen. Osasun Sailak ikerketa proiektuen finantziatorako emandako laguntza zuzenari dagokionez, %6a igo da aurreko urtetik hona, eta 625.000 €ko dirutza suposatu du. Zuzkidura hau Ikerketa Unitateen kofinantziatioarekin (zuzenean 60.000 € inguru) eta gainerako programen laguntza

gehiago edo gutxiago zeharkakoekin osatzen da, adibidez, prestakuntza eta ikerketarako beka eta laguntzen programa (81.212 €), eta IZB-aren %50a (estimazioen arabera, 25.500 € IU-etako ikastaroetarako laguntzak (4.900 €), Bilera zientifikoan antolaketarako (59.400 €) eta entitateei laguntzeko programaren %50a (estimazioen arabera 15.000 € Oro har, baieztatu daitezke Osasun Sailak gutxi gorabehera 875.000 € eman dituela kanpoko finantziario kontzeptuan.

**I. Eranskina: EAEko OSPITALEETAKO IRAKASKUNTZA KREDITAZIOA.**  
**2005/ 12/31**

ESPEZIALITATEA	KUPOA	TXAGORRI	SANTIAG	DONOSTI	GURUTZ	BASURTU	GALDAKA	S ELOY	ZAMUD	IONK	GUZTI
----------------	-------	----------	---------	---------	--------	---------	---------	--------	-------	------	-------

ALERGOLOGIA			1		1						2
A KLINIKOAK		2		2	2		1				7
A PATOLOGIKOA	C	1		1	2	1					5
ANES. eta ERREAN.		3		3	10	5	3				24
ANG. eta K. BASK.							1				1
AP DIGESTIBOA		1		2	3	1	1				8
BIOKIMIKA	C			1		2					3
KARDIOLOGIA		1			2	3	1				7
K KARDIOBAS	C				1						1
K. GEN-AP. DIG	C	1	1	3	2	1	1				9
K MAXILOFAZ.					1						1
K PEDIATRIKOA	C			1	1						2
K PLASTIKOA				1	1						2
K TORAZIKOA	C			1	1						2
DERMATOL.					2						2
ENDOKRINOL.					2	1					3
F. OSPIT.		2		2	2	2	2				10
FARMAZ. KLIN.											
GERIATRIA											
HEMATOLOGIA	C	1		2	2						5
INMUNOLOGIA				1							1
MED INTENTSI		1	1	2	2		1				7
BARNE MED		2	1	4	2	5	1				15
MED. PREB eta SP		1			1						2
MED. NUKLEAR	C				2						2
MIKROBIOLOG				2	1	2					5
NEFROLOGIA				1	2		1				4
NEUMOLOGIA	C	1	1	1	2	1	1				7
NEUROKIRUR	C			1	1	1					3
NEUROFISIOL		1			2						3
NEUROLOGIA				1	2	1	1				5
OBST. eta GINEK		2		2	4	1					9
OFTALMOLOG	C			1	2	1	1	1			6
ONKOL MED		1		1	2					1	5
ONKL ERRRAD	C			1	1					1	3
ORL.	C			1	1	2	1				5
PEDIATRIA		2		4	10	4					20
PSIKOL.KLINIK.			1	1		1	1		1		5
PSIKIATRIA			2	1	1	2	1		2		9
ERRADIODIAGN		1		3	3	2	1				10
ERREHABILIT				1	2	1					4
ERREUMATOLOG				1	1	1					3
TRAUMATOL		1	1	2	4	2	1				11
UROLOGIA	C			1	1	1	1				4

<b>GUZTIRA</b>		<b>18 Esp 25Plaza</b>	<b>8 Esp 9 Plaza</b>	<b>33 Esp 52 Plaza</b>	<b>38 Esp 84 Plaza</b>	<b>24 Esp 44 Plaza</b>	<b>19 Esp 22 Plaza</b>	<b>1 Esp 1 Plaza</b>	<b>2 Es 3 Plaz</b>	<b>2 Esp 2 Plaz</b>	<b>242 Pl</b>
----------------	--	---------------------------	--------------------------	----------------------------	----------------------------	----------------------------	----------------------------	--------------------------	------------------------	-------------------------	---------------

**FAMILI ETA KOMUNITATE MEDIKUNTZAKO UNITATEEN  
KREDITAZIOA. 2005/12/31**

IRAKAS. UNIT.	ZONA	OSPITALEAK	OSASUN ZENTROAK	PLAZA KREDIT.
<b>Araba</b>	I. Zona	Txagorritxu	Sansomendi Abetxuko Habana San Martin Zaramaga	14
	II. Zona	Santiago	Santiago-Alde Zaharra Aranbizkarra Olagibel	7
	III. Zona	Deba Garaia	Arrasate-Mondragon Oñati	6
	TOTAL ARABA			27
<b>Gipuzkoa</b>	I. Zona	Donostia	Billabona Andoain Alza Tolosa Lasarte Beraun Pasai San Pedro Zumaia Zarautz	21
	III. Zona	Bidasoa	Dumboa Irun Zentroa	6
	IV. Zona	Zumarraga	Ordizia Azpeitia Zumarraga Legazpi	6
	V. Zona	Mendaro	Ermua Elgoibar Eibar	6
	TOTAL GIPUZKOA			39
<b>Bizkaia</b>	I. Zona	Gurutzeta	Ortuella Rekaldeberri Algorta Erandio Txorierri Santurtzi Mamariga	22
	II. Zona	Galdakao	Galdakao Ariz Matiena Kareaga	16
	III. Zona	San Eloy	Kueto Lutxana	7
	IV. Zona	Basurtu	Otxarkoaga Deusto San Ignacio Albia	9
	GUZTIRA			54
<b>GUZTIRA EAE</b>			<b>120</b>	

## II. Eranskina: Egoi-1 EAE. 2005/31/12

OSPITALEA	Gurutz	Donostia	Basurtu	Txago	Galdak	Santiag	Zamudio	S.Eloy	I.Onkol	Beste*	GUZTIRA
ALERGOLOGIA						1					1
ANALISI KLINIKOAK	1										1
ANATOMIA PATOLOGIKOA	1	1	1								3
ANESTESIA ETA ERREANI.	6	3	5	3	3						20
ANGIOLOGIA ETA K. BASKULARRA					1						1
APARATU DIGESTIBOA	1	1	1	1							4
BIOKIMIKA											
KARDIOLOGIA	2		2		1						5
KIRURGIA	1										1
KARDIOBASKULARRA											
KIRURGIA OROKOR ETA AP DIGESTIBOA	2				1						3
KIRURGIA MAXILOFAZIALA	1										1
KIRURGIA PEDIATRIKOA											
KIRURGIA PLASTIKOA	1	1									2
KIRURGIA TORAZIKOA	1										1
DERMATOLOGIA	1										1
ENDOKRINOLOGIA	1		1								2
OSPITALE FARMAZIA		1	1	1	1						4
HEMATOLOGIA		1									1
INMUNOLOGIA		1									1
MED. FAMILIAR ETA KOM.	14	16	11	11	5	6		8		17	88
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA	1	1		1							3
BARNE MEDIKUNTZA	1	1	1	1	1	1					6
MEDIKUNTZA NUKLEARRA											
MEDIKUNTZA PREBENTIBOA											
MIKROBIOLOGIA			1								1
NEFROLOGIA	1	1									2
PNEUMOLOGIA	1		1								2
NEUROKIRURGIA	1	1									2
NEUROFISIOLOGIA											
NEUROLOGIA	1	1	1		1						4
OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA	3	2	1	2							8
OFTALMOLOGIA	2	1	1		1			1			6
ONKOLOGIA MEDIKOA	2	1		1							4
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIKOA		1							1		2
OTORRINOLARINGOLOGIA		1	1		1						3
PEDIATRIA	10	4	4	2							20
PSIKOLOGIA KLINIKOA		1	1			1					3
PSIKIATRIA	1	1	1		1	2	2				8
ERRADIODIAGNOSTIKOA	3	3	2	1	1						10
ERREHABILITAZIOA	1	1	1								3
ERREUMATOLOGIA	1										1
TRAUMATOLOGIA	4	2	2	1	1	1					11
UROLOGIA	1	1									2
<b>GUZTIRA</b>	<b>67</b>	<b>49</b>	<b>40</b>	<b>25</b>	<b>19</b>	<b>12</b>	<b>2</b>	<b>9</b>	<b>1</b>	<b>17</b>	<b>241</b>

\* Besteak:

- Bidasoa Ospitalea: F eta KMko 4 egoiliar
- Zumarragako Ospitalea: F eta KMko 5 egoiliar
- Mendaroko Ospitalea: F eta KMko 5 egoiliar
- Deba Garaiko Ospitalea: F eta KMko 3 egoiliar

**III. Eranskina: EAEko 2005eko EGOILIARRAK**  
(espezialitate eta urteka)

ESPEZIALITATEA	BAME 1	BAME 2	BAME 3	BAME 4	BAME 5	GUZTIRA
<b>3 URTEKO ESPEZIALITATEA</b>	<b>91</b>	<b>91</b>	<b>93</b>			<b>275</b>
FAMILIA ETA KOMUNIT. MED.	88	91	93			272
PSIKOLOGIA KLINIKOA	3					3
<b>4 URTEKO ESPEZIALITATEA</b>	<b>112</b>	<b>109</b>	<b>104</b>	<b>88</b>		
ALERGOLOGIA	1	2	1	2		6
ANALISI KLINIKOAK	1	1	1	2		5
ANATOMIA PATOLOGIKOA	3	1	2	2		8
ANESTESIA ETA ERREANIMA.	20	20	20	19		79
APARATU DIGESTIBOA	4	3	5			12
BIOKIMIKA						
DERMATOLOGIA	1	2	1	1		5
ENDOKRINOLOGIA	2	2	2	2		8
OSPITALE FARMAZIA	4	5	3	4		16
FARMAKOLOGIA KLINIKOA	Ez kreditazioa					
GERIATRIA	Ez kreditazioa					
HEMATOLOGIA	1	2	1	1		5
INMUNOLOGIA	1			1		2
MEDIKUNTZA NUCLEARRA						
MEDIKUNTZA PREBENTIBOA		1	1			2
MIKROBIOLOGIA	1	1	2	1		5
NEFROLOGIA	2	1	1	1		5
PNEUMOLOGIA	2	2	2	2		8
NEUROFISIOLOGIA		1	1			2
NEUROLOGIA	4	4	4	1		13
OBSTETRIZIA ETA GINECOLOG	8	8	8	8		32
OFTALMOLOGIA	6	5	4	4		19
ONKOLOGIA MEDIKOA	4	4	4	1		13
ONKOLOGIA ERRADIOTERAPIK	2	1	1	2		6
OTORRINOLARINGOLOGIA	3	2	2	1		8
PEDIATRIA	20	20	20	15		75
PSIKIATRIA	8	7	7	6		28
ERRADIODIAGNOSTIKOA	10	10	9	10		39
ERREHABILITAZIOA	3	3	2	1		9
ERREUMATOLOGIA	1	1		1		3
<b>5 URTEKO ESPEZIALITATEA</b>	<b>38</b>	<b>37</b>	<b>39</b>	<b>34</b>	<b>25</b>	
ANGIOLOGIA ETA KIR. BASK	1	1	1			3
KARDIOLOGIA	5	6	5	6	5	27
KIRURGIA KARDIOBASKULARR	1					1
KIRURGIA ORO. ETA AP. DIGES	3	2	5	4	4	18
KIRURGIA MAXILOFAZIALA	1	1		1	1	4
KIRURGIA PEDIATRIKOA						
KIRURGIA PLASTIKOA	2	2	2	2	1	9
KIRURGIA TORAZIKOA	1	1	1	1		4
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA	3	3	4	4	1	15
BARNE MEDIKUNTZA	6	8	8	5	5	32
NEUROKIRURGIA	2	1	1	1		5
TRAUMATOLOGIA	11	11	10	9	8	49
UROLOGIA	2	1	2	1		6
<b>ESPEZ. SAILKATUAK GUZTIRA</b>	<b>153</b>	<b>146</b>	<b>143</b>	<b>122</b>	<b>25</b>	<b>589</b>
<b>FAMIL MEDIKUN. GUZTIRA</b>	<b>88</b>	<b>91</b>	<b>93</b>			<b>272</b>
<b>EGOILIARRAK GUZTIRA</b>	<b>241</b>	<b>237</b>	<b>236</b>	<b>122</b>	<b>25</b>	<b>861</b>



## IV. Eranskina: I+G LAGUNTZAK 2005ean

Modalitatea	<i>Emandakoak</i>	<i>Eskabide kop.</i>	<i>Estaldura</i>	<i>Zenbatekoa €</i>	<i>Batez beste €</i>
<b>LAGUNTZA INDIBIDUALAK</b>					
Ikasketak Zabaltzeko Bekak	10	14	70%	51.310	5.700
Ikerlaritzan prestatzeko Bekak	14	21	70%	81.212	5.800
Ikasketak Zabaltzeko Osakidetzaren Bekak	69	108	64%	65.571	950
<b>ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZAK</b>					
Erakundeen Funtzionamendua	10	11	90%	33.000	3.300
Argitalpen Periodikoak	10	10	100%	37.600	3.800
Bileren Antolaketa	25	28	90%	59.400	2.400
Osakidetzako Bileren Antolaketa	18	18	100%	32.681	1.800
Ikastaroen Antolaketa	123			97.430	800
<b>IKERKETARAKO LAGUNTZAK</b>					
Ikerketa Proiektuak	19	104	18%	625.130	33.000
<b>LAGUNTZAK GUZTIRA</b>					
	298			1.083.334	3.600
<b>Interes Sanitarioaren Aitormena</b>					
	59	63	97%		

### IKASTAROEI BURUZKO ZEHAZTASUNA

Elkarteen Ikastaroak	4			7.900	2.000
Profesional Elkargoen Ikastaroak	52			40.140	770
Irakaskuntza Batzordeen Ikastaroak	47			29.090	620
Ikerketa Unitateen Ikastaroak	4	4	100%	4.900	1.200
Osakidetzaren Ikastaroak	16	37	43%	15.400	960